

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Flora Gauba Lete

*Bergara,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Flora Bergarako Osintxu auzoko Etxeberri etxean jaio zen. Gurasoak ere osintxuarrak zituen eta lau anai-arreba ziren etxean. Umetan auzoko eskolan ibili zen, baina gerra garaian eskola itxi zuten eta ez zuen ikasteko aukera handirik izan. Aita nazionalen aurka borrokan ibili zen denbora hartan. 14 urte bete zituenean, Osintxuko Artetxe Hermanos lantegian hasi zen lanean, eta bertan ibili zen 23 urterekin Kantera etxera ezkondu zen arte. Zazpi seme-alaba izan zituen.

Zintak

BER-316

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2012-12-18
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Artetxe anaien Etxeberri eraikineko bigarren pisuan jaioa

- **Erref:** BER-316/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:00:57. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gurasoak osintxuarrak ziren, aita Arando baserrikoa eta ama Etxeberrikoa. Artetxe anaien lantegian lan egin zuen Florak, amarekin eta ahizparekin batera. Lantegi jabeek Osintxun zuten Etxeberri eraikinean bizi izan ziren. Ezkondu ostean, bost urtez jarraitu zuen lantegian, baina gero gaixotu egin zen eta lana lagatzearekin bat, etxea ere laga egin behar. Orduan, Kantera etxera joan ziren bizitzera.</p>

2. Gerratean bost gizon gazte hil zituzten Osintxun

- **Erref:** BER-316/006
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Elizaren gainean zegoen eskola, baina bera ez zen asko ibili, gerra zibilak harrapatu zuen eta. Aita Elgeta aldera joan zen ihesi beste bi gizona korekin batera. Laredon kontzentrazio esparru batean eduki omen zuten. Frankistak sartu zirenean, bost mutil gazte hil zituzten Osintxun eta beste batek ihes egitea lortu zuen. Nortzuk ziren azaltzen du.

3. Gerrateko bizipen gogorrak; aita ihesi

- **Erref:** BER-316/007
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, ama lau seme-alabak hartuta bere jaiotetxera abiatu zen eta milizianoekin topo egin zuten bidean. Ordurako aita ihes eginda zegoen. Itzuli zenean, etxean kartzelan bezala egon zen denbora batez eta lanik ere ezin zuen egin. Sasoi gogorrak bizi izan zituzten. Militarrek ahizpa zaharragoa dantzaldietara joatea nahi izaten zuten, baina amak gogor egin zien.</p>

4. Alfonso Zangiturekin erromeria Osintxun

- **Erref:** BER-316/008
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Alfonso Zangitu osintxuarrak soinu txikia jotzen zuen eta erromeria handiak egiten ziren Osintxun gerra aurretik. Inguru guztietatik biltzen zen jendea.

5. Osintxuko jaietan txahalaren odolkiak eta haragia

- **Erref:** BER-316/010
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:13:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Osintxuko jaiak abuztuko azkeneko igandean izaten dira eta larunbatetik asteartera ospatzen zen. Txahala hiltzen zen plazan. Izendatutako pertsona batzuek txahalaren odolarekin odolkiak egin eta egosi egiten zituzten galdara handietan. Haragi zatiak ere saldu egiten ziren jateko.

6. Igandetako menua; letxuga azukrearekin jaten zen

- **Erref:** BER-316/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Aitak Eibartik ekartzen zuen haragi pusketa bat, Osintxun ez zegoen harategirik eta. Igandetako menua: zopa, garbantzuak eta haragia tomatearekin. Garai hartan letxuga azukrearekin jaten zuten. Gerra ostean kanpotik etorri zen jendeari esker ikasi zuten olioarekin jaten.

7. Erreketeen kuartela Osintxun; errepresioa

- **Erref:** BER-316/014
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Osintxu garai batean oso euskalduna zen. Gerraostean frankistek euskaldunei jatekoren bat edo zerbait ikusiz gero, kendu egiten zieten dio. Erreketeek kuartela eduki zuten beraiek bizi ziren Etxeberri eraikinaren beheko solairuan, Bergara aldera zegoen azken etxea zen eta. Auzoko bi neskari ilea moztu zieten.

8. Elgetako frontean zauritu edo gaixotutakoak Osintxura

- **Erref:** BER-316/016
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Erreketeak Osintxuko kuartelean egon ziren Elgeta hartu eta aurrera joan ziren arte. Osintxun "Circulo"a ere bazegoen, taberna eta guzti. Elgetako frontean zauritu edo gaixotzen zirenak ere hara eramaten zituzten. Beraiei jatekoa kentzen zieten, haientzat zela esanda.

9. Jaietan txahala hiltzeko ohitura

- **Erref:** BER-316/019
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Jaietan plazan txahala hil eta haren haragiarekin salda egiten da. Salda banatu egiten dute. Meza ostean "karidadia": haragi pusketak ogi zatien gainean ipini, bedeinkatu eta banatu egiten dituzte. Aspalditik datorren ohitura ei da, baina orain kendu egin omen dute.

10. Osintxun kale bakarra; jateko denda

- **Erref:** BER-316/021
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Garai batean kale bakarra zegoen Osintxun. Etxe azpi guztiak "zaltaiak" (kortak) ziren. Errementaria ere bazegoen. Bera gaztea zenean, jateko denda bat ere bazegoen. Mari zen dendaria; senarrak arotzeria zeukan.

11. Osintxuko ferratzailea

- **Erref:** BER-316/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Osintxuko errementariak ganaduak ferratzeko lekua ere bazuen; nolakoa zen. Ganaduak nola lotzen zituzten ferratzeko. Larruzko amantala erabiltzen zuen. Laguntzailea ere bazeukan.

12. Ahizpa mojari txitak eraman zizkion amak

- **Erref:** BER-316/023
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Kantera etxera bizitzera joan zirenean, oiloak ipini zituzten. Moja joan zen ahizpak Zumarragan egin zuen nobiziotza eta gero Abadiñora destinatu zuten. Han ezer ez zegoen etxe bat tokatu zitzaion eta amak etxean ateratako txitak eraman zizkion, han hazteko. Trenez joan zen.

13. Mekolalde eta Maltzaga trenentzat puntu garrantzitsuak

- **Erref:** BER-316/024
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Bi tren iristen ziren Osintxura garai batean: "Vasco-Navarro" trenea Gasteiztik Maltzagara; eta bestea Zumarragatik Mekolaldera. Zumarragatik zetorrena Gasteiztik zetorrenari lotzen zitzaion Mekolalden Maltzagaraino joateko. Maltzagan bi geltoki zeuden. Bilbotik Donostiara zihoan trenea ere pasatzen zen handik.

14. Eskolara gutxi joan arren, irakurtzen ikasi zuen

- **Erref:** BER-316/029
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:33:09. **Bukatu:** 00:35:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolara oso gutxi joan zen. Garai hartan zazpi urte ingururekin hasten ziren eskolan. Jaunartze txikia ere halaxe egiten zuten. Gerra zibila etorri zenean, eskola eta eliza itxi egin zituzten eta euskaraz egitea debekatu. Hala ere, irakurtzen ikasi zuen. Asko gustatzen zaio irakurtzea. Eskola euskaraz izaten zen. Adin desberdinetako neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta ezin asko ikasi. Gerora, bi eskola egin zituzten, bata mutilentzat eta bestea nesKentzat. Senar-emazte batzuk izan ziren irakasleak.

15. Bergaran neskame; jatekorik ez

- **Erref:** BER-316/033
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:37:21. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garai batean 14 urte izan arte ezin zen lantegian lanean hasi. Horregatik, Bergarako etxe batean neskame egon zen lehenengo. Ez zuten jatekorik izaten. Errazionamenduko batatak jaten zituzten. Esnea egiteko, hauts bat ematen zieten. Baziren garia estraperloan ehotzen zuten errota.

16. Baserritarrei dena errekisatzen zieten

- **Erref:** BER-316/035
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:39:43. **Bukatu:** 00:40:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloan zer ekartzen zen. Garai batean Osintxu inguruko baserritar guztiei baba, artoa, garia... dena errekisatu zieten. Familia bati txabolan zeuzkaten oilo guztiak kendu zizkioten. Txahalak edo bildotsak ere kentzen zituzten.

17. Lantegian haria nola fintzen zuten

- **Erref:** BER-316/038
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>14 urterekin Artetxe anaien lantegian hasi zen lanean. Andaluzia aldetik kotoi fardoak ekartzen zituzten eta haiek askatu behar izaten zituzten lehenbizi. Makinen laguntzaz haria fintzen joaten ziren. Gero, haril handiak egin eta haiek beste makina batera eraman. Matazak Bergarara eramaten zituzten.</p>

18. Bergaran neskame; igandean bizikletan etxera meriendatzera

- **Erref:** BER-316/042
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ezkundu aurretik neskame joan zen Bergarara, baina ez zuen denbora asko egin. Etxeko nagusiek diru asko bai, baina ez zuten asko gastatzen. Iloba bat ere bizi zen etxean ezkonduta. Baba errazioarekin ilobak egiten zuena. Ogi zuri askorik ez ei zuen ikusi. Meriendatzeko batata. Igande arratsaldean libre izaten zuen eta mutil-lagunak prestatu zion bizikletarekin etxera joaten zen meriendatzera.

19. Mutilak okaranak eramaten zizkion, ligatzeko

- **Erref:** BER-316/044
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:49:56. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Senarra ere Osintxukoa zen. Florak lan egiten zuen lantegiko enkargatua zen. Florarekin ligatzeko, lantegi ondoan zegoen arbolatik hartutako okaranak eramaten zizkion.

20. Arantzazun ezkondu eta hiru egunerako Donostiara

- **Erref:** BER-316/046
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:53:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Arantzazun ezkondu ziren, senarraren arrebarekin batera. Ezkontzak goizean izaten ziren, baina Arantzazun ez zegoen lekurik eguerdira arte. Osintxun jauna hartu, Arantzazun meza entzun, bertan bazkaldu eta arratsaldean Donostiara. Ostegunean ezkondu eta igandean atzera etxera. Lasa hostalean egon ziren.

21. Beraiek Arantzazura ezkontzera eta gurasoak basora egurretara

- **Erref:** BER-316/047
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Pena handia izan du beti gurasoak ez zirelako bere ezkontzara joan. Senarraren eta haren koinatuaren gurasoak ez zihoazela eta bere gurasoak ere ez ziren joan. Beraiek Arantzazura ezkontzera eta gurasoak basora egurretara. Ahizparen senargaia izan zen ezkontzako aitabitxia.

22. Beltzez ezkondu; gerorako loredun soinekoa

- **Erref:** BER-316/048
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:54:50. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Beltzez jantzita ezkondu zen. Donostian ateratako argazkietan lore batekin azaltzen ei da. Urriaren 11a zen. Gero janzteko loredun soineko bat eta abrigo grisa eraman zituen. Lantegian lan eginda pixkanaka aurreztutako diruarekin ordaindu zituen arropak.

23. Lepoko koskorra sendatzeko estraperloko "estratomizina"

- **Erref:** BER-316/050
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:56:27. **Bukatu:** 00:59:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Ezkondu eta gero lantegian lanean jarraitu zuen. Lepoan koskor bat irten zitzaion. Claudio Rodriguez mediku partikularrengana joan ziren Eibarrera, senarraren aseguruari esker. Baina ez zekiten zer izan zitekeen. Eibarko erloju-denda bateko dendariak Bilbora joateko esan zion. Han "estratomizina" (estreptomizina) behar zuela esan zioten. Estraperloan egoten zen, baina oso garesti. Baserritar batzuek prestatu zieten dirua hura erosteko. Hari esker sendatu zen.

24. Haurdunaldi bukaeran erori eta zortzi hilabeterekin jaio zen semea

- **Erref:** BER-316/053
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Zazpi seme-alabetatik azkenengo biak bakarrik eduki zituen ospitalean, besteak etxean. Bigarren semearen haurdunaldi bukaeran erori egin zen eta zortzi hilabeterekin jaio zen mutikoa. Orduan zortzi hilabeterekin jaiotakorik ez zela bizi izaten esaten zuten eta negar egin zuen berak ospitalean. Mikaela emaginak esan ziona.

25. Etxeberri eraikineko ganbarak su hartu zuen

- **Erref:** BER-316/058
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:07:17. **Bukatu:** 01:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Etxean sutea izan zuten bera umea zela. Suarekin baino gehiago urarekin izorratu ziren etxebizitzak. Kanpaiak jotzen ziren sua zegoenean. Amak, anaiak eta ahizpa zaharrenak errementariaren etxean pasa zuten gaua eta bera bakar-bakarrik beste etxe batean egon zen. Txarto pasatu zuen. Bizilagun bat dezente erre zen.

26. Umetako jolasak; mutikoekin pilotan

- **Erref:** BER-316/060
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:10:14. **Bukatu:** 01:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan "zelaminetan" jolasten zuten. Flora mutiko guztiekin pilotan aritzen zen. Txirikilarekin nola jolasten zuten. Soka-saltoa. Etxe aurreko plazan jolasten zuten.

27. Lagun bati izebak Madrildik ekartzen zizkion jostailuak

- **Erref:** BER-316/062
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:12:13. **Bukatu:** 01:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Tela zaharrekin egindako panpinak besterik ez zituen izaten. Gorago bizi zen lagun batek izeba bat Madrilen zeukan neskame eta hark jostailuak ekartzen zizkion.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com